




# Gasteizko Mendiak


21,9 km | ZIRKULARRA ERTAINA | 940m | Walking 4h. 15' | Running 2h. 15' | [www.walkingandrunning.es](http://www.walkingandrunning.es)





GASTEIZKO MENDATEA (748m) > BETOÑU HAITZA MENDATEA (870m) > PAGOGAN (1.029m) > MONASTERIOGUREN (590m) > MENDIOLA (570m) > GAZTELU (666m)







Ibilbide honek Gasteizko Mendi Altuen zati handi bat zeharkatzen du, gailur esanguratsuetan (Pagogan) eta mendi-ibilien eta BTTen hainbat eta hainbat ibilbideren helmuga eta abiapuntu diren herrietan barrena: Monasterioguren, Mendiola eta Gaztelu adibidez. Ibilbide zirkular bat egitea pentsatu dugu, irteera eta helmuga Gasteizko mendatean jarrita (748m).

 Gasteiz eta Trebiñu konderria lotzen dituen A-2124 errepidetik Gasteizko mendatera iritsiko gara, eta horixe izango da gure abiapuntua ( 1). Hortik abiatuta, GR-282 Artzaintza Bidearen markei jarraikiz, Okiarako bidea hartuko dugu, bidearen bi aldeetara dauden larretan barna ( 2).

Betiere eskuineko bideari eta marka zuri-gorriari jarraikiz, Okiaranzko bidea adierazten duten seinaleen gune batera iritsiko gara ( 3); kasu honetan, eskuineko bidezidorra hartuko dugu, Betoñu Haitza Mendateko lepora eramanago gaituen bide alternatibo bat hartzeko.

Gora egingo dugu —igoera gogor samarra da, tarte jakin batzuetan—, eta uso-postu batzuen ondoren igaro ondoren, bista zoragarriak dauzkan eremu ireki batera iritsiko gara ( 4) ( 5). Pago artean ( 6) jaitsiera leuna hasiko dugu Betoñu Haitza Mendaterantz ( 7), berriz ere Okiaranzko bidea erakutsiko diguna.

Hesi bat gainditu ondoren ( 8), eta markei jarraikiz, Gasteizko Mendi Altuetako hegoko hegaletara iritsiko gara, ( 9) belardi garbi eta bista amaiezinak eskainiko dizkigutenak. Urrunean, Pagogan eta Kalpildui mendietako gailurrak, besteak beste.













## Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Pagoganen gailurretik gertu ezkeralderako bidea hartuko dugu (📍 10), eta handik jaitsiera luzeari ekingo diogu, Monasterioguren aldera, Latxaparkako pagadia (📍 11) zeharkatuz erlaitzeko iparreko hegaletan barrena.

Jaitsiera-tarte luzea baina izugarri ederra amaiturik, lurrezko pista zabal batera iritsiko gara (📍 12), ezkeralderetik Monasteriogurengo inguruetara eramango gaituena. Herri horretan sartu baino lehen, seinale batzuek Mendiolarako bidea eta Betoñu Haitza Mendateko Koladako PR ibilbidea (📍 13) erakutsiko dizkigute. Bidezidorrak Monasteriogurengo (📍 14) mugak inguratzen ditu gure eskuinaldetik, eta hortik aurrera hiru kilometro gehiago izango ditugu Mendiolaraino, atzean Gasteiz ikusiko dugularik (📍 15).

Mendiolatik, asfaltatutako errepidean barrena (📍 16), Gazteluranzko (📍 17) bidea hartuko dugu, Olarizuko gailur esanguratsua gure eskuinaldean utzita. Gazteluko herrian, ezkererantz joko dugu, Gazteluko Antenetako gainaren (790m) asfaltatutako aldapa gogorrei aurre egiteko. Behin zati hori amaiturik, lurrezko pista hartuko dugu berriz ere, eta hesi bat gaindituko dugu (📍 18) Gasteizko Mendaterainoko itzulera-bidea (📍 19) markatzen duena.



### interesguneak

- Mendiola.
- Monasteriogurengo San Pedro eliza erromanikoa.

### informazio gehiago

[www.walkingandrunning.es](http://www.walkingandrunning.es)  
[www.turismo.euskadi.eus](http://www.turismo.euskadi.eus)

Pagogan

**VITORIA  
GASTEIZ**  
green capital



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY  
#Basqueexperience